

1993ko abenduak 31

218. zenb.




PRESS

ARRASATE




**Gatzagaren
berpizkundea**

Urteberri!



DEFENTSARIK ONENA ...



... BATASUNA

GANBARAK ZURE INTERESAK BABESTEN DITU

Bada zure interesak babesteko eta zeure jabetzak eragindako arazoak aurrikusteko eta konpontzeko era xume bezain egokia:

JABETZA HIRITARREKO GANBARA

Gutxien uste duzunean sortzen direlako arazoak, egunera itzazu kuoten ordainketak. Honela, jabe zaren partetik GANBARAK talde-interesak babestuko dizkizu edozein administrazioaren aurrean eta zerga, kontratu-erredakzio, eskakizun, jabe-kidetzatza-estatutu, errenta-arau, legedi, balioztapen eta beste hainbat gairen inguruko argibideak eskainiko dizkizu, eta guzti hau, **kostu gutxi izanik asko balio duen kuota baten bitartez.**



Zure Ganbara Gipuzkoan

GIPUZKOAKO JABETZA HIRITARREKO GANBARA OFIZIALA

DONOSTIA - Bilbo Plaza, 3 behe. Tfnoa. 46 41 33 • EIBAR - Egiguren, 12-14 behe. Tfnoa. 11 75 54 • IRUN - Berrotaran, 7 - 1. Tfnoa. 62 09 91.
ARRASATE - AHOIKULARITZA JURIDIKOA - AURRETIKO TXANDA. Tfnoa. 79 98 86

Asteleheneretan itxita

ZUHAITZ

jatetxea!




Memesa
79 42 22



Aldizkari honek
Arrasateko Udalaren
laguntza jaso du



Aldizkari honek
Gipuzkoako Foru Aldundiaren
laguntza jaso du



Aldizkari honek
Euzko Jauriritzako Kultura eta
Turismo Sailaren laguntza jaso du

Urte amaierako ipuina

E guzki izpi dizdiratsuek matraila leunki laztatzen zizkiotela eguneko eginbarrei errepasua egiten ari zen Silbestre, gozotasun hartan murgildurik uko egiten zion begiak zabaltzeari. “Aupa Silbi, aupa! Egunari heltzeko ordua duk”—esaten zion bere buruari.

Salto bat emanaz, berehala ohe ertzean jarri zen, mota gorridun kamisoi zuria erantzi ondoren planetadun bata luze bat eskijama grisaren gainetik jantzi zuen. “Hum, hum. Bai, gaur lurraren txanda da... 17 ordu besterik ez da falta”—esan zuen egutegiari begirada botaz.

Armozuko ontziak jaso ondoren, amantala erantzi zuen eta langelara abiatu zen: Denboraren ate urdin handia zabaldu zuen zilarrezko giltza handi bati hiru aldiz eskumatarara eragin ondoren.

Amaiera gabeko tubu, orratz, pendulu eta tramankulu artean Silbik bere bideari ekin zion kutxa txiki bat eskutan harturik. Ordu laurden bat ibili ondoren Lurra izeneko erloju erraldoi baten aurrean geratu zen: Dorre luze baten antzeko ardatz baten goikaldean izar gorri baten disdirek keinu*egiten zioten. Silbik bere kaxa zabaldu eta lanari ebatu zion. “Lehenengo ordularia prestatuko dut, gaueko hamabietan puntu puntu 1993 izarrak 1994ari argi emango dio eta honek bere bidea gailurreruntz hartuko du”.

Goiz guztia Denboraren gelan eman ondoren, bazkalondoko siestatik jaiki bezain laster Dohaien gelara sartu zen. Kolore guztietako izar hautsez eginiko altxor preziatuek kristalezko mahai handi bat inguratzen zuten. Bertan Unibertsoko irudia ageri zen.

Silbik “Lurra” hitza idatzi zuen bere hatzamarrekin eta berehala gure lurraren irudiak agertu ziren. Silbi goibeldu egin zen: “Gizateriak ez du ikasiko. Laguntza gehiago behar dute”—pentsatu zuen.

Orduan Silbik kutxa berde bat hartu zuen eta dohai ezberdinez betetzen hasi zen: zentzuna, itxaropena, zorientasuna, errespetoa, maitasuna, pakea, barkamena, ilusioa... Silbik handik eta hemendik batuta koktel lilaragarri bat osatu zuen kutxa berde hartan. Kutxa itxi ondoren, Denboraren gelara sartu zen eta berriro Lu-

rra izeneko erlojuraino joan zen.

Eskilara luze batetik igo ondoren dorrearen gailurreran utzi zuen dohainen kutxa. “Zaharrak berria indarberriurik piztu dezala”.

Lana bukatuta zegoen, Silbi nekatuta sentitzen zen eta afari legea egin ondoren ohean etzan zen. Sekula ikasiko ote dute?—galdetu zion bere buruari aurpegiko lehiatila ixen zituela.

IHINTZA



• ARRASATE PRESS •

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa) Tfnoa: 77 05 65. Faxe: 77 08 15

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Arantzazu Loidi. **Kazetariak:** Luis Fernandez, Maider Egües, Maria Agirre. **Publizitatea:** Amaia Gabilondo (77 08 15). **Administrazioa:** Agurtzane Gaintzarain eta Itsaso Errasti (Tfnoa: 77 08 15). **Maketazioa:** Txos Azurmendi. **Kolaboratzaileak:** Mikel Irizar, Eukeni Olabarrieta, Arantxa Lizaso, Blanka Jauregi, ASA taldea, Sabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Udako Inguurigo Eskola, Juan Bautista Agorria, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Jon Iñaki Lasa, Xabier Letona, Ihintza, Mikel Olabe, Mari Tere Alonso, Liher Larrea, Antton del Campo, Sorginak, Kopi, Danel Goikolea, Amaia Martiartu, Maite Martinez, Iban Astondoa, Haritz Larinaga, Cesar Cimiano, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozaeta. © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 5.500. **Logo-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Geru Koop. E. (Zubillaga, Oñati).



ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azaleko argazkia: Joseba Valles



“PAL”

**burdindegia,
brikolage
eta tresneria**

Uribarri etorbidea 3,
Tfnoa: 79 31 99

ARTOLA KOMERTZIALA

Zerkaosteta, 3
Tfnoa: 79 14 40
ARRASATE

Izadi

*Sendabelarrak, dietetika eta
kosmetika naturala.*

*Sendagile naturistaren
kontsulta*

Argaltze terapiak



Sebero Altube, 8 79 75 79
Kontzezino, 8 79 03 56

HIES EKIMENA

**Astelehen, astearte
eta ostiral
Setatik Setara.**

Tfnoa: 79 26 99

••••

Ehizaren aurka

Kaixo goizero-goizero nire lehio ondoan txio-txioka egoten zareten txoriak. Zuen egoera kezgarria ikusirik mezu hau bidaltzea erabaki dut arrazoi gabe bizitza kentzen dizueten ehiztariei:

Ez dut ulertzen hegazeen doan txori libre eta baketsu bati nola kendu diezaioke-zuen bere bizitza dibertimenduagatik eta ezta mendian bere ibilalditxo egiten ari diren basurde, untxi, erbi etab. luze bati ere. Nik eskatuko dizuedana momentu batez animalien bizitzan sartzea izango da, zuek animalia bihurtuz eta animaliak ehiztari. Horrela animalien egoera larria ongi ikusteko asmoz.

**JOKIN ZAITEGIKO 8.EKO
IKASLEAK**

••••

Sevillako etimologiak

Asteburu luze batetan Sevillara joateko aukera onartu nuen. Lehenago ere egonalditxo bat bertan egindakoa izan arren, eta ohituraz erakusten diren monumentuak ikusia, ondo iruditu zitzaidan autobus baten teilatu gainean exeririk eskeintzen den joanetorri turistikoa egitea.

Aurikular batzuk jartzen dituzu, eta euskara ez beste hizkuntza askotan (katalanera barne), ibilaldiko ikuskitzunen adierazpena egiten

dizute, iragarkietarako erabiltzen diren ahots sakon eta bustiez.

Gaztelera aukeratu nuen neretzat, baina miraria! euskara ere erabiltzen zen toponimiaren argudio bazala (eurak konturatzen ote dira?).

Gaizki ulertu ez banuen behintzat, “La Macarena”-ra inguratzean, hain zuzen, honelako sorrera edo oinarria ematen zaio izen horri: Makario izeneko baten lurraldea omen zen eta, legezko den bezala, “Makariona” deitu zitzaion.

Guadalkibir ibaiak ere, ba omen zuen hori baino askoz lehenagoko izenik: Españako ibai haundietatik hegoaldekoena, behekoena zela eta, “Betiko” izena jarri omen zitzaion, geroko arabiarrek orain duenera aldatu bazioten ere...

Hara nola Aita Larremendiren teoriei arrazoa ematen Sevillan, bertakoek, 1993an!

JOSE ANTONIO VILLAR

••••

Harpidedun horri:

Gure aldizkariaren banaketaren kontrola hobeto eramateko, eskertuko genizuke aldizkaria jasotzen ez duzun astean edo ostiral arratsaldean bertan jasotzen ez duzunean guri jakinaraztea. Horretarako, 770815 telefono zenbakira dei egin dezakezu. Eskerrik asko!

ARRASATE PRESSEK

OHARRA

Datorren astean ez da ARRASATE PRESSIK izango zure buzoian, oporrak hartu behar ditugu eta. Urtarri-laren 14ean izango gara berriz zurekin. Bitartean, Urteberri on!

FANCY

Bizkaia Etorbidea, 1 Etxabea ARRASATE Tfnoa: 77 14 24



PAZI-OLA

GALDARAGINTZAKO LANTEGIA

Zaldispe kalea, 2
ARRASATE Tfnoa 79 29 94

Bete dira aurtengo zenituen asmoak?



**Maite Barandiaran
Langilea (48 urte)**

Ez dut asmo berezirik edukitzen, ez dut proiekturik egiten urte hasieran.



**Josefa Alonso
Etxekoandrea (57 urte)**

Ba, guztiz ez dira bete. Etxekoentzako lana nahi nuen, eta beno, batzuek badute baina ez denek.




**Rosa Mari Hernandez
Langabetua (32 urte)**

Bueno lanik ez daukat baina hala ere, urtea ondo joan zaidala esan dezaket.



**Maximo Uribealzo
Jubilatua (65 urte)**

Espero nuen baino gehiago. Oso urte ona pasa dut. Ezbehar batzuk izan ditugu familian, baina pozik bukatuko dut urte.



**Joxe Mari Zubia
Jubilatua (71 urte)**

Bai, bete zaizkit. Nire asmoa irautea zen eta hemen jarraitzen dudanez, ba ondo joan zait urtea.



**Maria Dolores Villar
Etxekoandrea (74 urte)**

Baietz esan dezaket, ezin naiz kejavu.



**Iñaki Gantxegi
Altos Hornoseko
langilea (33 urte)**

Gutxigora behera bai. Urtearen balantze positiboa egiteko moduan nago.




**Txos Azurmendi
ARRASATE PRESSEKO
langilea (29 urte)**

Ez dut epe luzerako proiekturik egiten. Pertsonalki, aurreko urteaz konparatuta, aurtengoa behintzat hobea izan da.

OKASIOA!!
Informazioa eta salmenta
79 19 96

Lokal komertziala salgai
(Ferixalekuko parkearen alboan)
OSO PREZIO INTERESGARRIA
Ordainketa-era eztabaidagai



LOGOPEDIA
ZENTRUA
ARRASATE

HIZKUNTZ ARAZOAK

HIZKETA ARAZOAK

AHOTS ARAZOAK

IRAKUR ETA IDATZ ARAZOAK

Zurgin Kantoi, 3 - 1º Esk.
Tfnoa: 79 79 46 • ARRASATE

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritoxeak
 Arrasateko Eskualde-Ospit. 79 53 00
 Iguualatorioa 79 05 00
 Santa Agedako Ospitalea
 (gizonak) 79 39 00
 (emakumeak) 79 44 11
 Buru osasunerako zentrua 79 90 11

Gurutzegoria
 Bergara 76 55 76

DYA
 Antzuola 76 62 91

Anbulatorioak
 Arrasate (Larrialdiak) 79 13 57
 (Txanda hartzeko) 77 03 46
 77 07 21
 Oñati 78 08 52
 Eskoriatza 79 98 58
 Aretxabaleta 79 74 58
 Aramaio (945) 45 51 16

Anbulantziak
 Gipuzkoako ambulanziaz 45 87 44

Udaltzaingoa
 Oñati 78 04 11
 Bergara 76 14 69
 Arrasate 79 14 39
 Aretxabaleta 79 10 52
 Eskoriatza 79 03 22

Ertzaintza
 Arrasate 79 71 99

Suhiltzaileak
 Udal taldea 79 09 00
 Udal taldeko suhiltzaile
 burua 79 20 72
 Zubillagako Eskualde-Parkea .. 78 28 00

Matxurak
 Urak (udal zerbitzua) 79 09 00
 Elektrizitatea (Iberdrola) 12 01 62
 Gasa 900 40 05 23
 79 78 44
 79 76 78

Garraioak
 Taxiak 79 12 22
 P.E.S.A. 79 14 19

Hirugarren adinekoentzako zentruak
 Iturbide Egoitza 79 72*11
 Abaroa jubilatuen egoitza 79 81 57

Kontsumitzailearentzako informazioa
 Deba Garaiko Kontsumitzaile eta
 Erabiltzaileen Elkarteak 79 87 77
 KIUB-OMIC 79 51 55

Montterongo liburutegia
 Montteron 77 01 05


GOARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala 31
 Egunez eta gauzez: Ruiz, Magdalena.
Larunbata 1
 Egunez gaueko 10ak arte: Morales, San Andres.
 Gauzez: Camacho, Bergara.
Igandea 2
 Egunez gaueko 10ak arte: Azkoaga, Ferrerías.
 Gauzez: Camacho, Bergara.
Astelehena 3
 Egunez gaueko 10ak arte: Español, Iturriotz.
 Gauzez: Puy, Bergara.
Asteartea 4
 Egunez gaueko 10ak arte: Corcuera, Musakola.
 Gauzez: Guallar, Bergara.
Asteazkena 5
 Egunez gaueko 10ak arte: Irizar, Erguin.
 Gauzez: Estellas, Bergara.
Osteguna 6
 Egunez gaueko 10ak arte: Amezua, Santa Marina.
 Gauzez: Mozos, Bergara.

31 OSTIRALA

ZINEA
 "Mira quien habla ahora". 5etan eta 7.30etan.

BIZARZURI
 Aretxabaletan. Arratsaldeko 6.30etan aterako da Porta-soletik.



1 LARUNBATA

ZINEA
 "Mira quien habla ahora". 5etan, 7.30etan eta 10etan.

UDALAITZERA
 Gabonzaharretako bixamona pasatzera urroia eta cava eramanez behar dira.

2 IGANDEA


ZINEA
 "Mira quien habla ahora". 5etan, 7.30etan eta 10etan.

TXIKILANDIA
 Goizez 11etatik ordu 2etara. Arratsaldeaz 4etatik 8etara. Musakolako kiroldegian.

TXU-TXU TXIKILANDIA
 11etatik ordu 2etara. Arratsaldeaz, 4etatik 8etara. Geltokiak: Sebero Altube Plaza eta Musakolako Kiroldegia.

KONTZERTUA
 Arrasateko Kamara-Orkestra Barrokoa eta Goikobalu Abesbatza. San Juan Bataiatzailearen parrokian arratsaldeko 8,00etan..

ONDO BUKATU 93A ETA HOBETO HASI 94A.



"PRESOEN TESTIGANTZA JASO DEZAGUN" KANPAINAREN AMAIERA

Urtarrilaren 2an, Anoetako belodromoan ekitaldi politikoa. Donostiara joan nahi dutenentzat autobusa antolatu du Arrasateko Anmistiaren Aldeko Batzordeak. Autobusa arratsaldeko 4etan aterako da Garibai geltokitik. Izenematea lehenbait lehen, Irati, Etxerat eta Biona tabernetan.

SANTAMASAK 93. ARGAZKI LEHIAKETA.

Urtarrilaren 11n amaitzen da lanak aurkezteko epea. Arrasaten bizi den edozeinek parte hartu ahal izango du. Partaide bakoitzak gutxienez 3 eta gehienez 5 argazki aurkeztu ahal izango ditu. Argazkiak leku hauetan utzi daitezke: Laso-Arregi, Epelde, Ikatz, losu edo Imagenen.



TORTURAREN ERAKUSKETA

Torturaren Aurkako Herri Ekimenak antolatuta. Urtarrilaren 5era arte. San Frantziskoko lokalean, arratsaldeko 6etatik 9etara. Erakusketa honetan ikusgai: tortura moeta desberdinak argazkiez ilustratuak, tortura jasandako pertsonen adierazpenak, bideo emanaldiak eta Goya, El Bosco eta Elías Gomezen marrazkiak.

3 ASTELEHENA**ZINEA**

"Mira quien habla ahora". 7etan eta 9,30etan.

TXIKILANDIA

Goizez 11etatik ordu 2etara. Arratsaldez 4etatik 8etara. Musakolako kiroldegian.

TXU-TXU TXIKILANDIA

11etatik ordu 2etara. Arratsaldez 4etatik 8etara.

4 ASTEARTEA**ZINEA**

"Mira quien habla ahora". 7etan eta 9,30etan.

TXIKILANDIA

Goizez 11etatik ordu 2etara. Arratsaldez 4etatik 8etara. Musakolako kiroldegian.

TXU-TXU TRENA

11etatik ordu 2etara. Arratsaldez 4etatik 8etara.

5 ASTEAZKENA**TXIKILANDIA**

Eguerdira arte. 11etatik ordu 2etara.

TXU-TXU TRENA

Goizeko 11etatik ordu 2etara.

ERREGE KABALGATA

Arratsaldeko 6etan aterako da. Monterronen jaiotza ipiniko da.

6 OSTEGUNA**MUSIKALA**

"Los Miserables" opera-rocka. Gaueko 10,30etan. Bergarako Udal Pilotalekuan. Sarrera 1000 PTA. Urtarrilaren 7an, 2. emanaldia emanango dute ordu berean eta toki berean.

ZERBITZUKO ENPRESA KOOPERATIBOEN MASTERRA

Otsailean hasiko da eta azaroan amaituko da. Ikastaroak 300 ordutako iraupena izango du. Informazioa gehiago nahi baduzu jar zaitez Otalorarekin harremanetan. Tfnoa 797999.

IHAUTERIETAKO KARTELA

Urtarrilaren 14ean amaitzen da ihauterietako kartelak aurkezteko epea. Kartelean, "Haratusteak 94. Arrasate" agertu behar da.

PINTURA ERAKUSKETA

Bergarako 29 margolariren margoak ikusgai. Harresi Aretoan, urtarrilaren 7tik 23ra. Ordutegia: lanegunetan arratsaldeko 6etatik 8etara. Larunbat eta jaiegunetan, eguerdiko 12etatik ordu 2etara eta arratsaldeko 6etatik 8etara.

"EKIN" EMAKUME TALDEAREN IKASTAROA

Urtarrilaren 10 eta 11an gozogintza ikastaroa izango da. Ikastaroa Roberto Onaindiak emanango du. AEDko lokalean, arratsaldeko 3,30etan. Plaza mugatuak. Urtarrilaren 13an eskularen ikastaroak aurrera egingo du. Hau ere AEDren lokalean izango da, arratsaldeko 3,30etan.

SABIN ETXERA BISITA

Arrasateko EAJk antolatuta. Bisita urtarrilaren 15ean izango da. Arrasateetik joan nahi dutenentzat autobusa antolatuta da. Autobusa goizeko 11etan aterako da. Prezioa 2.000 PTA, bazkaria barne. Izenematea urtarrilaren 12a baino lehen, batzokian.

TXU-TXU TXIKILANDIA

Trena kalean zehar. Bidaia: Seber Altube Plaza- Kiroldegia; 100 PTA. Kiroldegia-Seber Altube Plaza; 100 PTA.

TXIKILANDIAKO EKINTZAK

Aktibitate ugari izango dira. Aparatuak: ohe elastikoak, puzgarri erraldoia, trena eta zezen mekanikoa. Tailerrak: globoak, kareta, jostailuak egitea eta paper birziklatua egitea. Rokodromoa egunero egongo da zabalik eta piztinar uretako aparatu eta jolasak egongo dira egunero. Sarrera 250 PTA. Abonua 750 PTA. Musakolako Kiroldegian.



“Gaur sekula baino gehiago, krisiaren aurrean irautea da geureganatu behar dugun ideia, era progresibo eta tinkoan europako mugetara hurbiltzeko modua emango digun plataforma berri batentzat gure Kooperatibetan oinarriak jartzeko. (...) Gainera, Estatuak bezala enpresek ere euren plantileei dagozkien askoz ere kostu handiagoak jasaten dituzte munduko beste lekuetan baino. (...)”

Krisitik irteteko itxurak, ekonomian aditu ematen dutenen esanetan, atzeruntz doaz, eta zailtasunak areagotuz doaz. Datoren urterako oinarritzko helburuak, produktibitateak eta horrekin batera kompetitibitatean hobetzen jarraitzea, nazioartekotzean sakonduz, gure merkatuen oinarria handitzeko. (...)”

Nabarmenki galduaz doan ingurune honekin dugun konpromezuaz, solidaritateko urrats bat ematea dagokigu Kooperatiben jarduera ekonomiari bultzada emateko, kompetitibitatea gure konpetenziak baino azkarrago irabaziz, horrela, etengabe beste herrialde batzuetara ihes egiten ari diren lanpostuak gure lur honetara ekartzeko gai izan gaitezten”.

Javier Mongelos Abenduko



“(Pedrotxo Guridi presoak) Bisita berriak gustora hartzen ditu, denbora luzean gure bisitak besterik ez zituen izaten baina orain jende gaztea ere hasi da joaten eta nahiz eta aurretik ezagutu ez, beste kontu batzuk ilusioz hartzen ditu. Eurak kanpoko jendeari begira daude, kalean izaten den umorea euren umorea izaten da, nahiz eta askotan ez dakidan nondik ateratzen duten. (...)”

Azkar esplikatzeko modukoak dira gure Gabonak, bi hitzetan esateko juergarik egin gabe ohera, tristeak izaten dira”.

Angel Guridik

SENIDEON AHOTSA

Zer izango da notizia datorren urtean Arrasaten?


MMaltzaga-Urbina errepi-deaeztabaidagune nagusienetarikoa izango da. Aurten iritzi bakoitzeko jendea taldetan eratu joan da eta bakoitzak bereari eutsiko dionez, nik uste enfrentamendua egongo dela. Hau da, bakoitzak bere proposamenen alde egingo du.

Bestalde, krisiak gogor jotzen jarraituko du, beraz aurten bezala albiste ekonomikoak garrantzitsuak izango dira. Adibidez UCEM korporazioaren inguruan akordio batera heldu beharko dute hiru parteek; udaletxea, sindikatuek eta UCEMekoek. Baina krisia dela eta, aipagarria izango da krisiaren aurka egiteko sortu berri den batzorde hiritarraren lana. Orain arte eta aurtengo urtean batez ere, krisiaren aurka ekintza edo mobilizazio puntualak egin dira. Talde hori sortzeak berriz protesta edo mobilizazioak etengabeak izango direla esan nahi du. Honek erakusten du krisiak jendea sentsibilizatu egin duela.

Hiri ordenamenduko plan orokorra ere hortxe dugu datorren urterako. Hirigintza planak berrituz egingo dira, baina hori hemendik bi urtetara amaituko da.

Nire ustez beste berri bat ere aipagarria izango da, suhiltzaileena. Arrasatek mankomunitatean garrantzia handia dauka, eta dakigunez suhiltzaileen ganean Arrasatek beste proposamen bat du. Ikusi egin beharko da mankomunitateko beste udaletxeek zer erantzuten duten, eta azkenean zer erabakitzen den.

Zela ez, Uharkapeko auziak ere hortxe jarraituko du. Gai hori jadanik serial bihurtu da, beraz aurrerantzean ere zeresana emango du.



Kepa Oliben

“El mundo” egunkariko berriematea

Autokarabanak alokatzen dira!

TAILERRAK

Tfnoak: 78 19 50 / 78 25 92 OÑATI

- HERGO eta HOBBY karabanak.
- RIVIERA auto-karabanak.
- SANGO erremolkeak.
- Kanping eta karabana guztientzako ordezkotzak eta osagarriak.



FAGOR



TALDE INDUSTRIAL KOOPERATIBOA

GURE ESKUALDE ETA EUSKADIREN ZERBITZUAN
ELKARLANEAN ARITZEN DAKIEN AGERBIDEA

Lan-istripuan ezbeharra

Aretxabaletako langile bat, Marcelino Lopez Monje 46 urtekoa, hil egin zen Arrasaten asteartean lan-istripu batean. Kanpazarko bideko obra batzuetan kamioi batetik eskabadora deskargatzen ari zirela, irristatu eta bolkatu egin zen makina, eta azpian harrapatu eta bertantxe hil zuen.



Eurijasak

Euskal Herri osoan bezala, Gabon asteburuan eurijasa galantak izan ziren gure inguruan. Bergara eta Maltzaga artean Deba ibaiak gainezka egin zuen arren, Arrasate inguruan ez zen uraundirik gertatu, baina bai eragozpen ugari. Arrasaten bertan, Jose Luis Iñarra kalean bi luperia izan ziren, beste bi San Jusepen, Kanpantzarren eta Urkulun bana, eta Aretxabaletatik Untzillarako bidean beste bat. Ur putzu handiak ere izan ziren eta ondorioz, adibidez, Arbizelaiko bidea, Arrasatetik Aretxabaletarakoa, itxi egin zuten asteburuan. Untzilla eta Zabola bitarteko bidea ere moztu egin zuten. Gesalibarren, Aita Menni ospitaleko garage eta harrera lekura ura sartu zen. Toki konkretu ugaritan ere kalteak izan ziren, esaterako Osinalde eta Menditxebarri baserrietan.

Nota txarreatatik ihesi

Almen ikastolako hamar bat neska-mutilek ihes egin zuten joan den astean, nota txarrak atera zituztela eta, etxera haiekin joateko beldurrez edo. Ihes egin-dakoak 10-12 urtekoak ziren, eta haietariko batzuk Gasteizen harrapatu zituzten eta besteak Huescaraino iritsi ziren. Baina ordu batzuen buruan denak zeuden etxean bueltan.

Inuzente eguna

Arrasateko komunikabideetan ez zen txantxa gehiegi azaldu Inuzente egunean. Diario Vascoko kronikak zioenez, Uharkapeko etxe-erakuntzaren arazoan, etxeak egiteko baimena ukatzeaz gainera,

epaileak dagoeneko eraiki den etxe bakar hori behera botatzeko agindua ere eman omen zuen. Uharkapen etxearen zain dagoen arrasatear kolektiboari ez zion grazia handirik egin, jakin dugunez. ATBK ere

sakatu zigun beste bat, klasikoagoa hau, Indurainek sinatutako bizikletak doan ematen zituztela eta.

Fagor eta Luzuriaga

Fagor taldearen parte

den Victorio Luzuariaga enpresan 590 lanpostu arriskuan egon daitezkeela kaleratu du prentsak aste honetan. Luzuriagak Pasaian duen lantegia desantolatu egingo litzateke.

JAIOTZAK

- Unai Uzarraga Pineiro. Abenduaren 5ean.
- Iker Moreno Gorosabel. 8an.
- Josu Uribarren Beitia. 13an.
- Ahneduridil Haritz Lopez Boudih. 11an.
- Josu Herrera Lobato. 18an.
- Josu Revuelta Garcia. 14an.
- Arlet Vicente Nogueiras. 16an.
- Ander Salaverri Nafarrate. 18an.
- Victor Andoni Markaide Ayastuy. 18an.
- Carlos Lazcano Uribetxebarria. 18an.
- Maite Gonzalez Ayerbe. 21an.

EZKONTZAK

- Jesus M^a Moraleja Alcocer & Miren Irune Alday Mendizabal. Abenduaren 18an. Zibilez.

HILDAKOAK

- Agustin Valverde Vidal. Abenduaren 15ean. 88 urte.
- Anastasio Bolinaga Ercilla. 15ean. 90 urte.
- Romualda Urkola Etxabe. 16an. 85 urte.
- Elisa Altuna Lizarralde. 19an. 79 urte.
- Fermina Lopez Gomez. 19an. 65 urte.
- Amparo Calzada Salazar. 20an. 91 urte.
- Daniel Aeta Madinabeitia. 22an. 82 urte.
- Marcelino Lopez Monge. 28an. 46 urte.



MIKEL ELORZA ETXEBARRIA
25. 452 zenbakidun Aseguru Artekaria
Arrisku gerentea
S.Z.O. F-95 erregistro Zka.

Boulevard, 11 5^a-A
Tfnoa: 43 04 14
Fax: 43 11 01
20.003 DONOSTIA

Erdiko kale, 4 Behea
Tfnoa-Fax: 77 13 09
20.500 ARRASATE

ARRIZABALAGA
aroztegia



Sukaldeko altzari eta orma barruko armairutan espezialistak

Legarre pabiloia, ARRASATE Tfnoa - FAX: 79 22 76





JULIA MONGE*

Emakumeok tinko batera

Abenduaren 4, 5 eta 6an eta "Emakumeok tinko batera" lemapean elkartu ginen Madrilén, komunitate guztietatik hurbildutako 3.000 emakumetik gora.

Ez da erraza Ihardunaldi sakon horiek hemen laburbiltzea, are guttiago kontutan harturik ponentzia eta tailerren aniztasunak—40 gutti gora behera—laburketa bera zailtzen duela. Dena den, gure oterra ideia eta erreflexioz pilaturik ekarri dugu, era guztietakoak daudelarik.

Orain bertan, han hasitako eztabaida sakontzea dugu asmotan batetik, eta bestetik eztabaidaren ondorioa interesaturik legokeen edonori helaraztea.

Jende askok (oraindik) honakoa pentsatuko duenez: Baina, zertaz eztabaida dezakete emakumeek hiru egunetan zehar... zein gai berri eztabaida eta sakondu dezakete ... zein helburu du

hiru mila emakume elkar-tzeak?... Gure erantzuna bat eta argi eta garbia da: **Askoz eta asko!**

Lehen Ihardunaldi feministak Madril eta Bartzelonan burutu ziren 1975 urtean. Geroztik hona, emakumeok tartaren zatitxo bat besterik ez dugu lortu, betidanik geurea behar genuena baina beti ukatua izan zaiguna.

Dena den, etengabeko lehiatzeko 18 urteok ez dira asko Historiaren osotasunean, zeinean emakumea eme izateagatik egon baita gizonaren menpe.

Ilargi bete asko eta asko-

*Zenbaitek dioten
parekotasun
erreal,
egun oso irreal
da.*

txo osatu beharko dira oraindik etxea lanerako geurea adina gizonena izan arte eta kalea gozamenerako beraie-na lain geurea izan arte, baina ziur gaude ihardunaldiok bezalako bultzadak baliagarriak direnik, bai gure autoezagutzarako, zein duinak sentituz aurrerantzean inork dohain emango ez diguna aldarrikatzeko.

Zenbaitek dioten parekotasun erreala, egun oso irreal da eta honegatik deritzogu beharrezko ahots ixil horiek estali nahi dena sala dezaten.

Anitz dira eta... kontuz, anitz izango dira erabilitako moduak, anitz arrazoi eta justifikazioak, anitz iluneko trama ixilak... guztiak... ezberdintza mantentzeko erabiliak! Ez zaitzate engai-na!

USTEAK USTE

BRAVO!

Txalo ozena Juan Arzamendi, txalo isila Edward Wufson eta Eduardo Clauseni, txalo eta "Bravo" zaparada Ainhoa Arteta prima donnari, txalo musikalena Letoniako Orkestra eta Prosperis zuzendariarentzat, txalo beroa Arrasate Musikal eta honen ordezkari gorena den Luis Sagasta jaunari.

Ez, hau ez da Arzamendi maisuak prentsari eskerak emanez bidalitako gutunaren transkripzioa, abenduaren 26an Amaia Antzokian izandako itzelezko kontzertuak sortutako musika zorabioak eragindako hitzak baino ez dira. Zorabioa eta emozioa ikuskizun honetaz gozatzeko aukera izan zuten arrasatearren beginietan nabari. Artetaren ahotik hasiera batean, batez ere, gabon kantez osatutako egitarauak, "light" a espero zitekeen arren, txunditu egin gintuen. Izan ere, ahots goxo bezain ingurutzailean, omendu nahiz gainerako interpretari guztiak eklipsatu baitzuten.

Ezin utzi aitatu barik, lanaren puruz musikaren, izarretara heldu gabe, estratosferara iritsi den Ane Miren Axpe bibolinjolea, Albina Madinabeitiaren bidea jarraituz, herriko gazteei musikaren irakaskuntzan aurrerabideak erakutsi dizkiena. Guztientzat ere gure "Bravo" ak.

JON GARAI

**BASABE
JATETXEA**

Menu eta afariak
Boda eta banketeak

Tfnoa: 79 91 84
ARETXABAETA

comercial
san juan

Garibai, 12
Tfnoa: 79 13 05

hikein

MARKO-
JARTZEAK
Zerkaosteta, 4
Tfnoa: 79 13 84

**MENDI
Taberna**

Mendi da zure etxea

Maalako Arrabala, 4
Tfnoa: 79 20 54



1989ko irailean atxilotu zuten Kristina.

SENIDEON AHOTSA

Kristina Zeziaga presoak askatu dute aste honetan

Astelehenean askatu zuten espetxetik Kristina Zeziaga arrasatearra, eta egun beren itzuli zen etxera. Lau urte pasa egon da preso. 1989ko irailean atxilotu zuten Arrasaten, eta geroztik Carabanchel, Yserias, Avila, Lugo eta Logroñoko presondegiak ezagutu ditu. Espetxean egon bitartean, magistratza ikasketak amaitu ditu, baina ezin izan du pedagogia karrerako egokitzapena egin. "Ez dago biderik, gizonezkoen kartzetan ez dago liburutegira sartzerik, ez dago gelarik, ezinezkoa da", adierazi digu itzuli eta gero.

Arrasateko Amnistiaren Aldeko Batzordeak harrera omenaldia egin zion Kristinari. Auto-karabana baten bidez egin zitzaion harrera Gatzagan, eta handik berarekin etorri ziren Arrasatera ekitalditxo batean parte hartzera. Bertan, "urduri" zegoela aitortu zuen, eta espetxean utzitako lagunak gogoratu zituen. "Goizean agurra eman kideei, eta gero kide horien amak eta familiakoak besarkatzea, hori da gogorrena", azaldu zi-

gun ondoren. Orain, lasaitu eta euskara lantzeko asmoa dauka. Kristina Zeziaga askatu ostean, beste hamalau preso arrasatear gertatzen dira espetxeetan.

Bestetik, espetxeratu eta atxilotuen egoerari buruzko bi mozio aztertu ziren joan den asteleheneko plenoan, eta biak atzera bota zituen gehingoak. Bata Arrasateko Senideak elkarteak aurkeztu zuen, Unai Parot preso lapurtarrak jasandako jipoia gaitzesteko, eta horren inguruan inizatiba batzuei ekiteko. Unai Paroten emaztea, Belen Arrizabalaga, arrasatearra da. Beste mozioa, Arrasateko Torturaren Aurkako Herri Eki-menak aurkeztu zuen. Tortura posible egingen duen legedia aldatzeko, eta tortura kasuak zigortzea eskatzen zuen mozio honek.

Korporazioak atzera bota zituen bi mozioak. Bozketan Herri Batasunak mozioen aldeko botoa eman zuen, baina gainerakoek ezezkoa. Pleno aretoan zegoen publikoaren aldetik, protestak eragin zituen bozketaren emaitzak.

Buzoiak: Arartekoaren ezetza

Euskal Autonomi Elkarteak, Juan San Martinek, baserrietako postaren arazoa berari ez dagokiola esanez erantzun dio Arrasateko udaleko auzo-batzordeak aurkeztutako kexuari. Ezaguna denez, Arrasateko baserriarrak kexu dira Correosek posta etxera bidaltzen ez dielako, ezta auzora bertara ere, eta horregatik idazki bat bidali zitzaion Arartekoari, esku har zezan eskatuz.

Arartekoaren erantzuna ezezkoa izan da; Correos administrazio zentralaren eskumena dela, eta beraz, berari ez dagokiola gaia, Espainiako Defensor del Pueblo delakoari deitu beharko diotela. Gutunak egurrezko buzoi berezi batzuetara bidaltzeko prest dago Correos, baina hori ez da nahikoa baserriarrentzat, buzoietan gutun asko galdu egiten direlako, eta auzotik urruti jartzen dituztelako.

Maalako glorieta

Maala, Otalora eta Garibai kaleen lotura puntuan glorieta bat egitea erabaki du Udalak, 30 milioiko aurrekontuarekin. Ertzaindegiaren pare-parean dagoen toki horretan, nahiko bidegurutze nahasia dago, eta hori konpontzea glorieta biribil bat egingo da, gidariak errazago molda daitezten.

José Angel Iborra
Tfno mugikorra: 908-77 08 56
Arrasate Paseolekua, 12 Bis
ARRASATE
Telemezua-doaneko deia:
900595959 - Bazkide Zn.: 400438

Garaiko perretxikoak urte guztian zehar!!

**RUTH
GATZAGA**

Olarte kantoia. Tfnoa: 79 59 57
ARRASATE



• Eguneko menua

• Asteburuetan menu berezia


• Paregabeko karta

Aldaiko hilerrian ez da ehorzketa gehiago egingo

Urtearekin batera hasiko da lanean benetan San Kristobalگو kanposantua. Aldaiko hilerrian ez da ehorzketa gehiago egingo, nahiz eta bisitetarako zabalik egongo den. Aldain panteoiak dituzten familien asmoa —bertan enterratzen segitzea— ez da beteko ondorioz, Arrasatek ezin ditu eta bi hilerri batera funtzionatzen izan.

San Kristobalگو martxan hasten dela eta, araudi bat onartu du Udalak. Izan ere, ehorzketak noiz egin erabakitzeke zegoen, gauez (neguan 7etan edo 8etan, kasu) lan egiteko argiteriarik ez dagoelako hilerri berrian.

Aukeretako bat, hildakoak elizkizuna baino lehenago enterratzea zen, Donostian egiten duten bezala, baina ohiturak indar handia du, eta hiletak gorpua elizan dela nahi izan dituzte familiek. Horregatik, aukera hori irekita utzi arren, beste irtenbide hau proposatzen da: ehorzketa biharamunean egitea, gauez hil-kutxa San Kristobalگو deposituan lagata. Hauxe da, beraz, datorren astetik aurrera indarrean egongo den sistema.



Deposituan egongo dira gorpuk lur eman arte.


Bestetik, hilerri berrian gertatu diren eraso bandalikoak direla eta, aseguru bat kontratatzea erabaki du Udalak. Orain arte San Kristobalگو ehortsita dagoen pertsona bakarren panteoia izan da eraso horietan kalte-tutako elementuetako bat.

Mailegu baten sinaketa

Asteartean 600 milioi PTako mailegua egiteko akordioa sinatu zuten Euskadiko Kutxak eta Arrasateko Udalak. Sinadura Euskadiko Kutxak euskaraz egin duen lehenbizikoa da, nahiz eta Udalak horrelakoak lehenago ere egin izan dituen. Diru kopuruari dago-kionez, ez da egiazki maile-gu erabat berria, aurretik hartutako beste konpromezu batzuk interes merkeagoekin berfinantziatzeko konponketa praktikoa baizik.

Barriocanal Gobernu Batzordera

Pedro Mari Ruiz de Azuaren ordezkari, Eusko Alkartasunako zinegotzi kargua Juan Antonio Barriocanalek beteko du Gobernu Batzordean. Udalbizitzako eguneroko agintaritza da Batzorde hori, eta HB, EAJ eta EAK osatzen dute, bina zinegotzirekin. Aldi berean, Barriocanal 3. alkateorde izendatu dute, Ino Galparsoro (HB) eta Jose Mari Loitiren (EAJ) ostean.



ARRASATEKO E.A.J. k

1994


URTE BERRI PAKETSUA

opa dizue

Urkuluko ura ordaintzen hasi behar du Arrasatek

Joan den astean sinatu zen hitzarmen baten bidez, Foru Aldundiak erakunde berri bati pasatu dio gure eskualdeko urtegien kontrola. Aurrerantzean, beraz, Gipuzkoako ur partzuergo edo kontsorzioak gestionatuko du Aretxabale-tako Urkuluko urtegia. Horrek izango du halako eragin bat arrasatear guztiongan. Izan ere, aurrerantzean Arrasateko udalak ordaindu egin beharko du Urkuluko ura, eta ez edonolako zifra, urteko 70 milioi PTA baizik.

Doan izatetik garestitze horretara pasatzeak badauka arrazoi bat. Izan ere, Gipuzkoako eskualde desberdinen artean uraren kostoak berdintzea nahi du Foru Aldundiak. Deba Garaiko ur-



Urkuluko gestioa Gipuzkoako Ur Kontsorzioaren esku geratu da.

hornidura nahiko kurioso dago, baina beste eskualde batzuetan garestiagoa da ura lortzea, eta horregatik agintariek gastuak "demokratikoki" banatzea erabaki dute.

Arrasateko Udalak ordainduko duenak, erabiltzaile guztiengan izango du eragina, uraren kontribuzioa % 10 garestitu egingo delako. Prezio berria, metro kubikoko

43 PTA izango da. Hurrengo urteetan zehar ere, garestituz jarraitu beharko du zerbitzu horrek, Ur Kontsorzioak metro kubikoko 80 PTAko prezioa gomendatzen du eta.



SUPERMERKATUA
ARABA ETORBIDEA - ARRASATE

ELIKADURA / EDARIAK / TXERRI-HARATEGIA / FRUTA ETA BARAZKIAK / IZOZTUAK / DROGERIA-LURRINDEGIA / TRESNAK

ADI!!!

Lehen 20 bezeroen artean, auto bikain hau zozkatuko dugu



GARAJEAKSALGAI

Maia antzokiaren ondoan, Ferixalekuko parkean

Ez aukera hau galdu!!

Prezio harrigarriak

Informazioa eta salmenta: Tfnoa: 79 19 96 ARRASATE



60 urte ezkontuta. Ez da marka makala **Kaio Calleja** eta **Rufina Mauleon**ek joan zen

astelehenean bete zutena. Kaio Santa Barbara parkeko zaindaria izan zela eta, batez



ere garai batean neska-mutikoek ezagutuko dute. Igan-dean, Bedoña auzoko elkar-

tean bildu ziren familiarteko guztiak hain urtemuga pozgarria ospatzeko.

EPELDE



Javi Uribarren eta **Rosa Mari Quiroga** irailaren 25ean ezkondu ziren.

Ezkon bidaian Errepublika Dominikarrera joan ziren. Zorionak!



Merezitako omenaldia jaso zuen **Juanito Arzamendik** joan zen igandean. Eguerdian, Oñatiko Etxe Haundi jatetxean koadrila majoa batu

zen hainbeste lan egin duenari eskerrak emateko. Juanitok berak, hainbeste ez duela merezi dioen arren, bazkarira joan zirenek alderantziz pentsatzen dute.

ERRASTI KRISTALDEGIA

**Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
akzesorioak**

Olarte kalea, 47 behea Tfnoak: 79 22 55 79 14 25



Elhuyar hiztegi entziklopediko kaleratu berriak, Arrasateri buruzko hainbat definizio ekartzen ditu. Hona hemen zer dioten Arrasateri buruz.



Arrasate: Gipuzkoako udalerria, Udalaitz, Anboto eta Udala mendien magalean (Deba Garaia); 25.504 bizt. (arrasatearrak). Aramaiona Deba ibaira isurtzen da bertan. Industria da nagusi (...) Hainbat jauregi eta etxe monumentu izendatu dituzte: Artazubiaga, Okendo, Monterron, etab. Lezetxiki haitzuloa.



ARRASATE PRESS: Euskal astekaria, AEDren ekimenez eta Arrasateko Udalaren babesean, ARRASATE PRESS taldeak argitaratua (1988). (...) Euskarazko herri-aldizkarien aintzindari eta eredu da.

AED: Arrasateko kultur erakundea, herritar euskaltzaleen ekimenez sortua (1983). Arrasaten euskararen erabilera bultzatu eta euskal kultura suspertzea du helburu. Herritarrei zerbitzuak euskaraz eskeini, (...) denda eta erakundeetan euskara erabiltzeko hitzarmena lortu, etab. dira burututako ekintza nagusiak. (...)

IZEN PROPIOAK

Euskadiko Kutxak

eta **Arrasateko Udalak** lehenengo aldiz sinatu dute mailegua euskaraz. Udalak lehenago ere sinatu zuen mailegua euskaraz Kutxarekin.

Kristina Zeziaga

Mendizabal, 31 urte, preso arrasatearra astelehenen askatu zuten. Duela lau urte, irailaren 23an atxilotu zuten Arrasaten. Kristinak 4 urte eta 3 hilabete pasa ditu kartzelan. Espetxe desberdinetan izan da: Carabanchelen, Yese-rías, Avila, Lugo eta Logroñon.

Luis Mari Lopez

Rekarte, 32 urte, futbolista mondrauetarrak Euskadiko Selektioarekin jokatu zuen. Luis Marik gaur egun Deportivo De La Coruña taldean jokatzen du.

BEITIA URKOLA SENDIAK
AITA MENNI OSPITALEKO
"HERMANAS HOSPITALARIAS"
ETA PLANTILA OSOARI
ESKERRIK BEROENAK
EMAN NAHI DIZKIE
BERE AMA NIEVESEN
GAIXOALDIAN JASOTAKO
LAGUNTZARENGATIK.

**URRIN
EDARITEGIA**

Etxeko janari bereziak

Uribarri Etorbidea, 22 Tfnoa: 79 95 24 ARRASATE

Euriteak

Joan zen astebukae-
 ran euri zaparrada ga-
 lantak izan ziren. Se-
 guru bat baino gehia-
 go etxean geratu zela
 eta urak eragindako
 hainbat kalte ez zitue-
 la ikusi. Etxeko lehia-
 tik euria nola jausten
 zen ikusten gelditu zi-
 renentzat, hona he-
 men argazki sorta.



Ulgor parean 30 zm- sakonerako ur potzuak egin ziren. Astea joan ahala gutxitu zen ura.

Jabier Ozaeta



Gabon egunean 87,5 litro m² jausi ziren eta abenduaren 26an 25,9 litro m²-ko. Puente la ranan ura gainezka zegoen.

J. Ozaeta



Etxe batzuetako biztanleek susto galanta pasa zuten. Menditxebarrikoek esaste-
 rako.

J. Ozaeta



Urak aurrean aurkitzen zuen guztia eramaten zuten. Santamainera joatea ezinezkoa zen.

J. Ozaeta

Gatzagako Erreabilitatze Plan Berezia


Maider Egües

1956. urtean gatzagak desagertzeak, kalte handia ekarri zion herrixka honi. Gainbehera beldurgarria jasan duen herri hau, bigarren jaiotza ezagutzen ari dela esan daiteke orain.

Goikobagarixan, Jarindon, Troken eta Urkitzan aurkitutako megalitoek, 14'7 Km².tako Gipuzkoako herri honen jatorria prehistorian kokatu daitekeela adierazten digute. Gatzagatik Dorletara bidean aurkitzen diren bost gatz-manantialak, erromatar zibilizazioa baino lehenagotik 1956. urtera bitartean Gatzagako herria aberastu duten iturriak izan dira.

DORLAK

Ur geza ebaporatu eta gatz bihurtu arteko prozezu hori egiten zen tresnari "Dorla" deritzo. Dorlak, gatz egiteko makinak ziren eta izen bera zuen gatz-manantialen inguruan garai batean sortutako auzuneak. Auzune hau, Arkeolanek egindago azterketen arabera, Gatzaga izeneko auzuneak herri tituloa lortu baino lehen, inguruko garrantzitsuena zen, nukleoa. Castillako Alfontso XI.aren gutun baten aginduz, 1331. urtean Gatzaga auzune izate-tik herri independente izatera pasa zen, bere gain, Dorla, Goierrri eta Iñurrietako elizateak hartu zituelarik. Ondorioz, Labidea izenez ezagutzen zen herriska desagertu egin zen.



Gaur egun, era honetan daude gatzagak.

1552ko ordenantzen arabera, zortzi dorla-etxe zeuden herrian. Aberastasun pilatzerik egon ez zedin, familia bakoitzak dorla bat baino gehiagoren jabe ezin zuela izan adierazten zuten; beraz, dorla horietako bat familiar-tean heredentzian hartuz gero, saldu edo alokatu beharra zegoen. Dena den, erromatar garaitik 1956. urterarte epean, fenomeno askok eragin diote Gatzagari eta era guztietako garaiak bizi izan ditu.

GAINBEHERA

Industria Arrasaten eta bailarako beste herri batzue-

tan bildu izanak, gatz-industria kostaldeko puntuetan ugaltzeak eta nekazaritza eta abeltzantza gutxitzeak, Gatzagako iharduera sozialak erabat gutxitu zituen, hainbat mendetan zehar punta-puntako hiria izan zenak, apurka-apurka atzerantz egin zuen ia desagertu arte. Iharduera ekonomikoa gelditzeak, gatz-fabrikaren betirako ixteak (1956), leku batetik bestera joateko azpiegitura egoiki baten faltak eta bizi-maila hobe baten eskeintza egoteak, lantokitik hurbil zeuden etxebizitzetara alde egitera bultzatu zituen bertakoak. 1900. urtean 503 biztanle izatetik 1983an 204 izatera iritsi zen herria.

BIRGAITZE PLAN BERRIA

1983arte Gatzagako biztanlegoa izugarri jeitsi bazen ere, orduetik egun hauetaraino, igoera nabarmendu da: gaur egun 245 pertsona daude udaletxean enpadronaturik. Igoera hori, dena den, ez da edonolokoa izan.

Gatzagako udalak, herriak jasaten zuen emigrazioaz kezkatutik, erreabilitatze plan bat jarri du martxan. Pasa diren Santamas jai hauetan ikusi ahal izan da plan berri horren ardatzetako bat: Gatzagen berreskurapena. Gatzagak arkeologi mailan eta potentzialki interesa duela argi dago, ondare historiko interesgarri moduan baloratu baitu Euskal Gobernuak behintzat. Hainbat eskabazio egin ondoren, Foru Aldundiko Ondare Historiko Departamentutik deitu zieten eta haien laguntzaz, gaur egun erreabi-

A
berastasun
pilatzerik egon
ez zedin, familia
bateg ezin
zezakeen dorla
bat baino
gehiago eduki.



Santamasetan, gatzagarrrak euren produktua gatza saltzera etorri ziren.

litazio programa bat martxan dago Gatzagan. Eskabazioen bitartez aurkitutako artaroko gatz-explotazioaren artisau sistemarekin, berdiseinu egin da eta dorla batekin gatza produzitzea posible izango da urte pare bat barru.

Udaletxeak, bideragarritasun azterketa egin du gatzaren salmenta zein punturarte errentagarri izan daitekeen jakiteko: emaitzak kaxkarrak izan dira. Eugenio Otxoak, Gatzagako alkateak dioenez, artesautza salmentatik ateratako errentabilidade guztiak dira kaxkarrak, baina turismoarekin konbinatuz gero, errentagarriak atera daitezkeela uste du. Horretan ari dira saiatzen momentu honetan.

ENPLEGU-INIZIATIBA BERRIA

Udaletxeak egin berri duen enplegu inizatibaren arabera, Gatzagako herriak batu ditzakeen bokazioak kontutan izanik, artisau-eskaintza turismo ofertarekin konbinatuz gero, etorkizun

ekonomiko hobea lor daitekeela pentsatzen da. Asmohori beteko den edo ez jakiteko, Gipuzkoako Diputaziotik biabilitate ikerketa batzuk jarri dira martxan. Dena den, udalaren eta Saiolanen artean, elkarlan handia dagoela azpimarratu behar da.

Enplegu inizatibak, honako ekintzetan banatzen dira:

1.—“ELART”: Saiolanen promozionatutako aktibitatea da hau. Herriko produktuak komertzializatu eta denborarekin, “Jatorrizko Izendapena” ekar diezaike horrek produktuei.

2.—“DORLAS”: Lau edo bost pertsonak osatzen duten kooperatiba da. Explotazio forestalean oinarritzen da.

3.—“I.G.M”: 1989an Saiolanen sortutako inizatiba. Erreaktibo immunologikoen komertzializazioan datza.

4.—“LARRUGINTZA TAILERRA”


5.—“URGARRI KERAMIKA TAILERRA”

6.—“TAXUTU”: Orientazio pedagogiko eta profesionalerako zerbitzua.

Aipatutako inizatibak martxan daude, martxa onean gainera. Gatzaga berpizkundean prozesuan dagoela esan daiteke: Aintzinako gatzagak berreskuratuz eta artisau enplegu berriak sortuz. Edonola ere, 245 biztanletako herri honek beste kultur-talde batzuk ere batzen ditu: Jubilatutako Taldea, “Sorginak” emakume taldea eta “Page-dar” euskararen aldeko taldea.

“Herriak bere lekuan iraungo zuen ere ez genekien, jendeak alde egiten zuen. Baina herri bat eta biztanle batzuk dauden bitartean, ezin daiteke herria hiltzen utzi. Gatzaga herri polita da eta aukera pila bat ematen du: Etxe asko abandonaturik zeuden, orain denak bete dira eta horrek jende berri eta gaztearen etorrera ekarri du” dio Jasone Elkorobarrutiak, kulturako presidentek.

Bide onetik doaz.



**usko
Jaurlaritzak,
ondare historiko
interesgarri
moduan baloratu
du Gatzagako
herria.**

● *Bitorino Zubillaga*

Azkenengo gazgiña

Orain 76 urte Gatzagan jaio eta bertan bizi da Bitorino Zubillaga. 1958an gatz fabrika itxi arte bertan lan egindako azken sei gazginetako bat da bera. Deba Garaiko herri zaharrenari izena eta nortasuna eman dion lanbidearen lekuko paregabea dugu.

— Nola egiten zen gatzaz?

— Gatzaz eite zan aparatu batzuetan. Lelengo antigualeko estilora ez zan eitten. Oso diferente. Zeaitti-eze ni antigualeko estiluan ikusitta nau, mutiko gatzetxua nintzela. Orduan ibiltten nintzen Dorletako ermittan monagillo eta hor traiektuan orduan ez euen gañerako erroparik eta guardasolai be haixiak buelta emoteutzan da, han gazgiñan ibiltten zien hemen bertako beziñuak, ta haretzek ikusten nindduen, eta esateustien, e mutiko, etorri hona, hemen berotu bat hartzen; eta akordetan naz orduetik zela antigualeko moduan eitte eben gatzaz. Galdaretan, labian egurrakin sua eiñ da ura berotu, eta gauzak zela eitte eben. Denpora asko eukitte eben, eta urari eitte jakon halako tela sendo bat, makilla bategaz eraitte eutzien. Ura gaste-ta zanian, olezko halako des-

kansillo edo pisu batzuk galdara pare-parian ifinita euen, eta orduan gatzaz hara goiko tablaura botate eben, eta sikaketa zan, ura jauste jakon, eta lelengo modelo antigualekoa ha izate zan.

— Langile asko zineten?

— Gu ibilli gintzen denporan, hiru errelebotan eitte eben. Kontinuo-kontinuo eitte zan. Asi ke hiru errelebo, xei, eta beste bat enbalajian jakak montetako. Errelebuan lagun bi, bat aparatueta eta beste bat galdaran. Ze han galdaretan baporraz eitte zan gatzaz, baporran beruaz. Hori zan modernua. Eote zien aparato batzuk botilla estilo antzera, gargantiaz, eta gargantetan llabia, kortetako, beste-la gatzaz eitte zanian, atarateko gatzaz aparatueta ura bajetan bazan, ur asko galtze zan, eta ze eitte jakon? llabia zerrau! Eta gatzaz, eindda eue-na, zentrifugara jauste zan, eta gero zabalketa jakon barriro llabioi, eta hola eitte zan gatzaz. Eta aparato bati atarate jakon ordu bittik ordu bira, eta bestiai lautik.

Baserritarak eitte ebena zan egurra. Orduan solo-izkiña eta baztar guztiak garbittuta egote zien. Egurra, ondo preparata sendorretan eruate eben, sendotxua bazan es-



kuturran tamañutik gora, eta biaje bakoitza ez dakit zenbat kobreta eben, egurrak kontautu. Oiñ dana hondaketan da eta orduan dana aprobe-txete zan hor.

— Ura nondik zetorren?

— Oiñ Otxoa eta honek (*alkatea eta*) garbittu daue eta nik esan nutzen nundik, manantialetara jo eixen. Zeaitti-eze bi entrada euken len horrek manantialok, bat erreka-kontratik, baña goiko edifizio guztia jausi zan (*duela bost bat urte*) eta ha bete ein zan: entrada beteta dauko eta hundiduta be egon bihadau. Beste aldetik dauko deposito bat, beste arku batetik sartzen da, nobera justu-justu ibiltteko, eta handik euen. Ez ekixen iñok handik zer euenik, unikamente deposi-

tua zala gatz-urana. Etorri zienen estudixetan, handik ezin zeikiela, entradarik ez zala agiri eta nik esate nutzien baie-tz, entrada euela handik, manantialetara ondo sartu lei-kiela. Mendi barrutik urteten dau. Gatz-ura bakarrik ez, ur dultziak kantidadia urteten dau, eta metal-urak be bai. Hiru edo lau manantal dauz, azpitik gora. Ura baso bate-gaz hartzen dozu, dultzia eta gazixa, eta ez dotzazu igarriko. Oiñ, gazixa gustuan, ha gatzaz da, eta han manantiale-tan egun bixen eukitten bozu ura korriduten igarrikotzazu, baltzittu eitten da, eta useña dauko, uretzan useña dauko.

— Irtenbiderik ikusten diozu gaur fabrikari?

— Difizill ikusten dot. Zeaitti-eze gaur egunian orduko aparatuak montetia izango balitza... milloi asko bihada. Askok. Bizimodua asko kánbixau da orduetik hona, eta... Esateutzat nik Otxoari: daukotzun diru guztia ez ifiñi hor, parte bat gorde gerorako.

● **“Galdaretan, labian egurrakin sua eiñ da ura berotu. Lengoa modelo antigualekoa ha izaten zan.”**



Saioa gimnasioan karate egiten; lehena azaltzen dena Isidor Ugarte dugu.

Karateka arrasatear gazteak txapelketetako elitean

Arrasateko Saioa Karate Klubeko bi gaztek 2. eta 3. postuak lortu dituzte abendu honetan jokaturako Euskadiko Txapelketan. Iker Bitoria, 17 urtekoa, 3. geratu da bere kategorian, 65 kilotik beherakoetan; eta Isidor Ugarte, 16 urtekoa, 2.a izan zen 70etik beherakoetan. Isidorri, postu horrengatik, Espainiako txapelketara joatea egokitzen zaio orain, eta agian Ikerrek ere zorte bera izango du.

Txapeldun gazteekin batera, 60 bat neska-mutil aritzen dira Saioa gimnasioan karatea lantzen, Iñaki Muñoz irakaslearekin. Horiarik bostek daukate gerriko beltza, eta Isidor Ugartek martxoan dauka marroi-

tik beltzera pasatzeko azterketa. Iker Bitoria "bi kolore beherago" dago, gerriko urdinean. Normalean astean hiru aldiz entrenatzen dute.

Kirol hau praktikatzeko ez da halako giharre berezirik behar. Azkartasuna eta potentzia, biak batera behar dira, eta masa asko ez da komeni. Karatearen funtsa, Judoaren alderantzizkoa da ia: judoan aurkakoari obatu egiten zaio, kolperik inoiz ere eman barik. Karatean, ezin da ogatu, eta eskuekin burura izan ezik, gainerako kolpeak zilegi dira.

Bi mutilek Kyokushinkai izeneko barietatean egiten dute burrukan, eta helburua K.O. egitea da kontateetan. Horixe da karate

era latz eta gogorrena, baina ez diote beldurrik. Txapelketetan, dena den, ez da horrela burukatzen, "markatzen" baizik. Gimnasioan, Aikido eta Full-Contact modalitateak ere praktikatzen dituzte lantzean behin.

Iker eta Isidorrek esaten digutenez, karatea zerbait berezia da. Karate hitzak, adibidez, "esku hutsik" esan nahi du. "Ez gaude honetan kirol bat egiteagatik bakarrik, pentsamendu bat ere bada". Hala ere, Karate Kid eta horrelako filmeetakoak zerikusi askorik ez duela diote. "Pelikuletan politagoa da, errealitatean desberdina da". Edozein modutan, argi utzi nahi dute ez dela "makarrada" bat.

LABURRAK

AUKEA sariak

AUKEAk 1993. urtean gehien nabarmendu diren kirolari eta kirol-elkarte arrasatearrak saritu ditu, aurreko urteetan bezala. Kirolari indibidual bat, talde bat eta aipamanezko sari berezi bat (Arrasate Telebistari) dira banaturakoak. Sari indibiduala Izaskun Iglesiasi emango zaio, aurten Euskadiko gimnasia erritmikoko txapeldun geratu delako. Taldeen artean, Mondrako nesken futbol taldea da saritua, Euskadiko Kopa irabazteagatik. Kirola sustatzen egindako lanagatik, aipamen berezia egin diote ATBri. Sariak urtarri-laren 6an, Errege egunean, banatuko dira koadrilen saskibaloi txapelketako finalaren atsedenean (12etan), Iturripen.

Arrasatearrak krossean

Duela pare bat aste Gipuzkoako Kross txapelketa egin zen Orion eta Arrasate Atletiko Taldeak emaitza aipagarriak lortu zituen bertan, talde indartsuekin lehian. Junior kategorian taldeka txapeldun geratu ziren mondrauetarrak (horiarik 1. Gabriel Saavedra izan zen 7. postuan). Nagusien artean paper bikaina egin zuten arrasatearrek: 40 urtetik gorakoetan 2. geratu zen Enrike Kabiketa, eta 55 urtetik gorakoetan Jesus A. Eskibel izan zen txapelduna.

V. O. Version Original
General Alava, 16 - Tfnoa: 13 33 39 - GASTEIZ

Onduline TXOMIN HERIZ
eraikuntzarako materialak
Biltegia: Bidekruzeta, 1 Tfnoa: 79 23 18
ARRASATE

PENALTIAK

● **Mondrak galdu egin zuen Federazio Kopa, Gasteizen 3 - 1 galdu ondoren Amurrioren aurka. Nahiz eta Mondra irabazten hasi, Amurriok izan zuen kontrola eta beraz emaitza justutzat har daiteke. Mondrak plantila osoa zeukan, baina lesio iragan berrien eragina igerri egiten zen.**

● **Federazio Kopako final horretan, 3.000 pertsona zeuden Gasteizen, gehienak Amurriotik joandakoak. Izan ere, Arabako Foru Aldundiak autobusak doan jarri zituen Amurrioko zaletuei. Horren berri jakin zuteanean Mondrak eskaera berbera egin zion Gipuzkoako Diputazioari, baina erantzuna ezezko biribila izan zen.**

● **la kirol liga gehienak geldid daude Gabonetako asteburu hauetan. Futboleko 3. maila da salbuespena, eta Mondra Sodupen jokatzekoa da ostiralean, 15.30etan.**

● **Ordiziako Sari Nagusia munduko frogarik garrantzitsuenetakoa da igeriketean. Aurten, arrasatear bat da parte hartzekoa frogan, Aritz Arrieta Kabiketa 16 urtekoa. Aurreko 10 edizioetan, arrasatear bakarrak hartu du parte, Ane Lasagabasterrek.**



Ez dira kirol-emaitzak Mondrak zuzendu behar dituen bakarrak.

Mondrak aurrekontu orekatuak onartu ditu

Mondragon Futbol Taldeak 93-94 denboraldiko aurrekontuak onartu ditu aste honetan, nahiko bazkide gutxirekin egindako biltzar batean. Uztailen izandako aurreko asanblada hartan defizita ageri zen zifretan eta horregatik geratu ziren onartzeke orduan. Orain, orekatu egin dira aurrekontuak, eta superabita lortzea ere espero dute (1,5 milioi PTA), klubak daukan 7 milioi PTAko zorra kitatuz joateko. Hiru urtetan zorra ezabatzea du helburu oraingo direktinak, Jose Luis Ezkurra lehendakari buru dela.

Aurrekontuan ia 22 milioi PTAko gastuak daude aurrikusita, eta 23,4 milioiko diru-sarrerak. Iaz 19 milioikoa zen aurrekontua, eta

igoera Atxabalpeko zelaia- ren gestioa Mondraren esku geratzen delako da. Orain arte gestioa AUKEAren zen. Atxabalpeko mantenu gastuak 4,6 milioikoak izango dira, eta AUKEAtik 4 milioi abonatuak dizkiete.

Klubak auzi hau AUKEAren negoziatzeko esperantza dauka.

Esan daiteke, oro har, ahalegin handiak egin direla gastuak kontrolatzeko, eta bestetik, sarrerekin errealistak izan direla (takiletan ez da gehiegi lortzen, zaleak nahiko hotz baitaude) eta diru-iturri berriak aurkitu dituztela. Alor horretan, oinarrizko taldeek egindako ahalegina da azpimarratzekoa, beren aldeko porraren eta kuoten bitartez lehen ez zegoen dirutza eskuratu dutelako.

Krisiak eragina duela bistan dago, adibidez, babesleen beherakadan. Talde txikiak ez dago aurkitzerik esponsorrik, eta nagusien babesleak, Astorek, bakarrik segitzen du.

Gastu nagusiak:

Bidaiak	2,5 milioi
Nominak	9 milioi
Primak	2 milioi
Materiala	1,2 milioi
Gastuak guztira	21,9 milioi

Sarrera nagusiak:

Babeslea	1,5 milioi
Subentzioak	2,6 milioi
Takilan	2,3 milioi
Abonatuak	6 milioi
Sarrerak guztira	23,4 milioi



- Estetika kabinetea
- Larruzko artikuluak
- Bitxitegia
- Jostailuak

Kanpatorpea, 4
Tfnoa: 79 12 19 ARRASATE



Doctor Bañez, 1 behean, San Andres auzoan
ASTELEHENETIK OSTIRALERA ARTE
Goizeko 9etatik 1a arte
TFNOA: 79 19 21

Jose Mari Mendizabal, Gabon kantu asmatzailea

Jose Mari Mendizabal San Andreseko parrokiako apaiza da, idazle bezala ere ezaguna. Hogetalau urte zituela, Venezuelara joan zen apaiz lanak egitera eta hamazazpi urte eman zituen bertan. Venezuelako gabonetan inspiraturik, gabon-kantu bat asmatu du orain.

— Zerk inspiratu zintuen gabon-kantu hau egiteko orduan?

— Beno, jolas antzeko bat izan zen. Egunero ordu pare bat ibiltzeko ohitura dut eta noski, bi ordu horietan burua ez da geldirik egoten, pentsatzeko asti asko izaten dut. Hoietakoa pasiada batean, Venezuelan egon nintzeneko


hamazazpi urte haietan gabonak nola ospatzen zituzten pentsatzen hasi nintzen

— Beraz, Venezuelako gabonetako kanturen batek inspiratu zintuen?

— Beno, bai. “Novena” antzeko bat egiten zuten elizan, 9 ordutako festa bat. Oso kantu politikak zituzten, eta horietako batzuk aztertzen hasi nintzen: Sei silabetako bertsoak dira, “El ni-ño Je-sús, que na-ció en Be-lèn”, eta pentsatu nuen; zergatik ez euskaratu? “Je-sus haur-txo-a, Be-le-nen ja-io-a” ... eta horrela bertsoak egituratzen eta asmatzen joan nintzen.

— Zein doinu jarri diezu bertsoei?

— Musika gainontzeko



Jose Mari Mendizabal

kantuetatik desberdina izan zedila nahi nuen, hemen zortziko txikiarekin doinu ugari daude, baina nik beste gauza bat nahi nuen. Horretan pentsatzen nenbilela, melodiak bat atera zitzaidan, Venezuelako melodiaren antzeko bat.

Estrililoa:

Jesus haurtxoa, Belenen jaioa,
Zu zera munduko salbatzailea.
Goazen Belenera, adora dezagun
Jaioberria den haurtxo Jainkoa

Gauaren erdiko ixiltasunean
Maria izan du lehen semea.
Josepe senarrak xamur so eginez
Zaintzen ditu biak ama semea

Belengo herrian basoko larretan
gabelak egiten ziren artzaiak.
Entzun zutenian aingeruen deia
korrika joan ziren haurra ikustera


Aintza zeruetan Goiko Jainkoari
Pakea lurrean gizon guztiei
Alaitu gaitezen Gabon jai hauetan
eduki dezagun poza bihotzetan.

**'CARFRA' SUKALDE
ALTZARIAK
5 URTETAKO
GARANTIAZ**

**ELEKTROGAILUTAN
MARKA GUZTIAK**

**ARMAIRU
ENPOTRATUAK
ISPILU-ATE
KORRIGARRIEKIN**

**BARNE ETA
KANPOKO ATEAK**



Vanessa

CARFRA

Berango
ALTZARIAK

ERAKUSKETA

Legarre pabiloia z/g

Gipuzkoa Etorbidea

Tfnoa: 79 01 92

ARRASATE

DeLonghi

marka
italiarraren
banatzaile
ofiziala

Z E R N A H I A G O ?

Tere Markaide

"Nerea" dendakoa

- Gabon egun hauetan zer da gehien saltzen dena? Korseteria.
- Eta gutxien? Egun hauetan denetarik saltzen da, inoiz baino gehiago.
- Gizonak etortzen dira emakumeen barruko erro-pa erostera? Bai, asko; gero eta gehiago.
- Zer oparituko zenioke zure senarrari? Bata bat.
- Zer ekarri dizu aurten Olentzerok? Perfume bat.
- Belena edo zuhaitza jarri duzue etxean? Biak
- Zein koloretakoa da zure pijama? Urdina.
- Zer gosaltzen duzu? Kafesnea eta tostadak.
- Zerez betetzen dituzu bokadiloak? Urdaiazpikoz.
- Abesle bat? Joakin Sabina.
- Zapata marka bat? "Loocky".
- Arrasateko txokorik politena? Monterron.
- Dendan saltzen dituzun berruko erropa "sexy" ak janzten dituzu zuk? Bai, tangak izan ezik.
- Bikinia edo bainujantzia? Biak.
- Ilea tintatzeko ohiturarik? Ez dut tinterik erabiltzen, baina antzeko produktu bat bai; kolore beltza eta kaoba nahasten ditut.



BERTSOAK

Urteberri on!

la konturatzeke urtea joana Olentzerok bete du berriz bere lana denoi utzi dizuet erregalo bana. Aprobetxatu urte zaharrak daukana eta hobeto hasi hastera doana.

OLENTZERO

LORAMENDI KIROLAK

HASI URTEA ESKIATUZ

LORAMENDI KIROLAKEKIN



SKIRAKO JANTZIAK
19.900 PTATIK
HASITA

- SKIRAKO JANTZIETAN ESKAINTZA APROBETXA EZAZU AUKERA
- OSAGARRIAK: POLOAK, BETAURREKOAK, ESKULARRUAK, SKI ETA BOTENTZAKO POLTSA BEREZIAK

MAIATZAREN 1ª PLAZA TFNOA: 79 97 24

Xabier Amuriza

Bertso txapelketari gainbegirada


Xabier Amuriza bertsolari bizkaitarra, bertsolaritza modernoaren berri-tailetako bat, azken txapelketako gorabeheretaz hitz egiteko elkarrizketatu genuen. Arantzazun amnistiaren aldeko baraua egitera zihuan egunaren bezperan harrrapatu genuen Arrasaten.

— Zer iruditzen zaizu txapeldun berria?

— Txapeldun handia. Nik Andoni Egañarekin kantatu ere asko egin dut. Eta kantatu dudanean, beti atera zaigu ondo, gainera ondo bakarrik ez, nahiko esplosibo. Andoniren ezaugarriak sortzailearenak dira. Ironia eta segurtasunaz aparte, sortu egiten du. Gainera txapelketa honetan, dudarik gabe diferentziatzen, Andoni nagusitu da; besteek egin dituzten lan onak kendu gabe, eta lan onak asko izan dira. Txapelketa honetan puntu gailurrekoak asko izan dira eta txapelketak eman dezakeen onena hori da.

— Euzkitzeren kexuen inguruan zer? Euskara okerra ez dela zigortzen...

— Ez dago gaizki hori. Euzkitze lehendik ere bazezilen hori esaten.



Gauza asko daude euskarari buruz bertsolaritza eztaba- datu eta pentsatu beharrekoak. Baina ez da gramatika bakarrik, zeren Euskal Herriko txapelketa batean, adibidez, gaiaren enuntziatze bat etorri zen “zu zara madre superiora”. Beste hizkuntza batera jo eta “madre superiora” klitxe moduan hartua? Euskarak oso problema handiak

dauzka orokorki eta bertsolaritza horiek isladatzen dira, baina ez da gramatika kontua bakarrik, espresio kontua da. Oso espainolista gara hemen eta erdaratik grazia egiteko erregistro asko hartzen ditugu, txispa emateko erdarazko klitxeak erabiltzen dira eta horrek ez dit ematen pozik. Uste dut ondo dagoela eztabaida zabaltzea, batez ere euskara-

Gauza asko daude euskarari buruz bertsolaritza pentsatu beharrekoak, baina ez da gramatika bakarrik.

ri berari barrutik ateratzeko etekina, indarra eta espresioa.

— Bertso eskolen lana igeri da txapelketan, ezta?

— Noski, hor ez dago dudarik. Ni bertso eskoletan antzina ibili nintzen, orain 10-15 urte, eta hori izan zen nire konflikto-bideetako beste bat, orduan sektore askok barkatzen ez zidatena. Baina aurrera joan da eta horrek bere ondorioak eman ditu eta inguru honetan, Sarasua eta horiek, eskola edo nukleo hori izan ez balitz, ea nola aterako ziren. Gertatzen dena da orain inork ezin duela kontra egin, fruituak hor daude eta, baina orain hamar urte hori defenditzen nik adarrak apurtu behar izan nituen.

— Plaza asko egiten dituzu gaur egunean?

— Bai, egiten ditut, baina egiten ditut gai librekoak eta hiru bertsolaritza behera beti. Taldean edo koadrila handian ibiltzeari uko egin diot. Noizbait ibiliko naiz halako ekintza puntual batzuetan, adibidez unibertsitatean saio bat jarri zuten. Horrelakoetan badakit salbuespenak egiten, baina normalki nik nire buruaren jabe izan nahi dut, ez talde handi batean bat gehiago.

mokasin
Zapatak eta osagarriak
Kontzeziño, 6
Tfnoa: 76 06 78
ARRASATE

URRATS
AHOLKULARITZA
GARIBAL, 3
Tfnoa: 79 87 74
ARRASATE

ZUBIZARRETA
TAILERRAK
Gipuzkoa Etorbidea, 22
ARRASATE
Tfnoa: 79 15 65


GORKA
ILEAPAINDEGIA
SOLARIUMA
Ferrerias, 35 ARRASATE
Tfnoa: 77 13 78

Liburutegia

Monterron eta Santamainako Auzo liburutegiek, fondoak kontsulta eta irakurketa liburu (18.000 liburu inguru), aldizkari eta bideo mailegua, erreserba zerbitzua, fotokopiagailua, erreferentzia zerbitzua, informazio bibliografikoa, dokumentazio zerbitzua, liburutegi arteko mailegua, hemeroteca, taldeentzako mailegu bereziak, gidatutako bisitaldiak, bertako fondoak, liburu berrien boletina eta mikrofilmak irakurtzeko aparagailua. Informatika gela, Jose Letona artxinoa, Juan Carlos Guerra artxibo mikrofilmataua eta Jokin Zaitegi liburutegia.

Liburu eta diskak

AEDren gabonetako azokako liburu eta diska salduenak: **Liburuetan, Consumatum est, Non dago Stalin**, Pako Arestiren **Irene** eta Bernardo Atxagaren **Obabakoak**. **Txisteka Misteka**, Jose Mari Iturraldearen **Ijitoak dauzkat nire etxean** eta **Zikoien kabian sartuko naiz**, Enyd Blytonen **Bostak**. **Perkax** eta **Txalupa saila**. **Disketan, Benito Lertxundiren Bilduma, Sorotan Bele, Anje Duhalde, Su Ta Gar, E.H Sukarra** eta **Ehun Kiloren Euli Artean**. Oskorriren **Katuen Testamentua** eta Txirri, Mirri eta Txiribitonen **Jolasean ze arraio!**



Bazen behin Txikilandia...

Heldu da. Heldu da berriz ere TXIKILANDIA. Txiki eta ez hain txikitxoan ametsen lekua. Arrasateko Udalak antolatua, aurtengoz 5. aldiz burutuko da Txikilandia.

Urtarrilaren 2an zabalduko dira Txikilandiako atekak eta abenduaren 5erarte zabalik egongo dira.

TXU-TXU TXIKILANDIA

Musakolako polikiroldegian eraikiko da Txikilandia, baina lasai, Musakola urrutiegi dagoela uste baduzu, Arrasateko Udalak garraio-bide bitxi, merke eta dibertigarria prestatu du eta: "Txu-Txu Txikilandia". Trena kalean zehar ibiliko da Musakolara joan nahi duten ume guztiak batzeko. Goizeko 11etan irtingo du trenak Sebero Altubetik eta 14.00ak bitartean, Sebero Altubetik Kiroldegirako bidaia egiten ibiliko da. Bidaia 100 PTAtakoa izango

da eta ondo baino hobeto pasako dute txikitxoek halako trenean ibiliaz.

AKTIBITATEAK

Etxeke oheetan saltoka ibiltzeko ohitura baduzu eta amak hori egiten uzten ez baduzu, joan zaitez Txikilandiara: kiroldegiko zabairaino jasoko zaituzten ohe elastikoak izango dituzu zure zai. "Puzgarri erraldoiekin" jolas egiten ahal izango duzu, baita kiroldegi barruan bueltaka ibiliko den trenarekin ere. Indio eta bakeroen filmak gustoko badituzu eta behin baino gehiagotan "rodeo" famatu horietako batean parte hartzeko gogoia izan baduzu, Txikilandian sekulako "Zezen mekanikoa" daukazu zain; gainera igo eta ea zenbat denbora irauten duzun. Gauza modernoagoetara pasatuz, kontuan izan, joan den urteko "Bungue Run" a ere bertan

izango duzula ondo pasatzen.

Jostailu guzti hauetaz gain, tailerrak ere antolatuko dira; aurpegia mila kolorez margotu ahal izango duzu, zure gustora edo begiraleen gustora. Karetak egin ahal izango dituzu, baita oparitzeko jostailuak ere. Paper birziklatua egiten erakutsiko dituzte ere. Altuerak gustoko badituzu eta zorabiorik sentitzen ez baduzu, Rokodromoa zabalik egongo da egun guztian zehar. Bestalde, pizinan uretako aparatu eta jolasak egongo dira egun osoan zehar. Kirol jolasak ere aukeran izango dituzu.

Jolas guzti horietan ez duzula minik hartzen ziurtatzeko eta edozer gauzetan laguntzeko, AEDko, Besaideko eta Igeri Taldeko 20 monitore izango dituzu Txikilandian. Azkar, Txikilandia zure zain dago!



ARGÍ PLASTIC

- PVC eta Aluminioan egindako leihoak, atekak, manparak...
- Lantegitik zure etxera zuzenean


Eska ezazu aurrekontua konpromezu barik

Erakusketa berria:
Kanpatorpea, 2
(Parrokia ondoan)
ETORRI IKUSTERA!



Tailerra eta Bulegoa: Axeri, 3 Tfnoak: 77 11 30 / 79 11 35

Stylo Stauffer Munar



Edertasuna eta Osasuna

94an ere arin eta lirain zainduko zaitugu

Munar, 8 Tfnoa: 77 02 49 ARRASATE



San Viator Ikastolako euskarazko lehen promozioa

J

an Viator ikastetxean, 1979an hirugarren mailan zeuden neskatila mutikoak dira hauek. San Viatorko euskarazko lehen promozioa osatu zuten, eta neskak eta mutilak nahasi jarri zituzten lehen urtea ere bai. Ikasturteko azkenengo eguna zen, eta Ikastetxe zaharreko eskaileretan ataratako erretratua dugu. Ikasturte amaierako erregalua jaso berri zuten, eta batzuk oraindik eskuetan dutela ikusten da.

Goiko ilaran ezkerretik hasita, **Arantzazu Uribesalgo**, **Arantzazu Mendizabal**, **Ander Etxeberria**, **Igone Ajuria** andereñoa, **Gaspar Ezkurra**, **Josune Satruste-**

gi eta **Jaione Ruiz**.

Jon Ugarte, **Sonia Coto**, **Ainhoa Urrutia**, **Alfonso Galiot** eta **Itziar Uriarte**.

Edurne Aiausti, **Elena Elorza**, **Andoni Balzategi**, **Pello Urreta**, **Elena Díaz**, **Ana Iragi** eta

Ainhoa Arregi.

Oskar Carrascal, **Aitor Aperribai**, **Maite Uranga**, **Oskar Ruiz**, **Ane Miren Aiastuy** eta **Gentzane Lopez**.

Edurne Mendieta, **Ainhoa Otamendi**, **Begoñe Ugarte** eta **Monika**

Lizarzaburu.

Jorge Zabala, **Iban Rico**, **Iban Kortabarria**, **Oskar Madina** eta **Mikel Etxebarria**.

Begoña Rodriguez, **Maite Aiala**, **Judith Murua-mendiarez**, **Amaia Tirados** eta **Leire Maruri**.


UGARAN jatetxea

Garagartza auzoa Tfnoa: 79 76 58 ARRASATE

ERIN!!!

Hasi urtea goxo, goxo

GOZOGINTZA IKASTAROA



- **NOIZ:** URTARRILEAN 10 ETA 11AN
- **ORDUTEGIA:** 3,30ETAN
- **NON:** AEDN
- **EMALEA:** ROBERTO ONAINDIA GOZOGILE OSPETSUA
- **KONTUZ:** MUGATUA DA
- **DEITU:** 79 54 46 TFNORA



MANGO

Postas, 5 eta 5 bis GASTEIZ

Tfnoa:(945) 23 04 48

• AIPUA •

“Beldurra beti ezjakintasunetik etortzen da.”

EMERSON

• JEROGLIFIKOA •

A tsi
E
I tsi
O tsi
U tsi

Nola ikasi behar da euskara?

• GURUTZEGRAMA •

1	2	3	4	5	6	7
8					9	
10			11			
12		13			14	
15				16		
17			18			19
20						

J. B. AGORRIA

Horizontalak 1. Horoskopo zeinua. 6. Lítioa. 8. Kortak. 10. Eta. 11. Ibai-arrain jangarria. 12. Orion itsasoratzen den ibaia. 14. (Ald.) 3 adierazten duen aurritzia. 15. Arrazoidun. 17. Idi hitz elkartuetan. 18. Hitz grekoa. 19. Galioa. 20. Aitita.

Bertikalak 1. J. R. Arrasate Musikaleko zuzendaria. 2. Beldurti. 3. (Ald.) Itsasoan ugari. 4. Koitadu. 5. Burdina lortzeko tokia. 6. (Ald.) Burusoil. 7. (Ald.) Saltoki. 9. Gantz, koipe. 13. Donostiako disketxea. 16. Zutik egoteko sostengu.

• HOROSKOPOA •

Aries Noizbait lortuko duk, ziur nago. Euts iezaio, mutil, eutsi!

Taurus Praka zabalxeagoak jantzi, errebentatuko duk/dun bestela.

Gemini Zein zorientsuak diren zu ixilik zauden momentuak!

Cancer Erakutsi duzu hankasartzeak egiten perfekzionista zarela.

Leo Pazientzia handiágoa edukitzea ondo etorriko zaizu.

Virgo Badakizu zergatik ateratzen zaizkizun granoak. Txokolatezko turroi gutxiago jan.

Libra Egin dizuten oparia ontzat hartu eta eman eskerrak.


Scorpio Daukazu superman konplexua kendu ezazu gainetik, mesedez.

Sagitaris Badakizu txanpain la-regi edatea ez dela ona osasunarentzat.

Capricorn Iratzargailu bat oparituko dizu norbaitek behingoz esna zaitez.

Aquarius Zure irudimena urrutiegi daukazulakoan nago. Zaindu!

Piscis Buruan daukazun proiektuak gauzatzen badituzu, ez zara bat ere gaizki ibiliko.



KÖMMERLING
PVCzko leihogintza

Markulete Industrialdea, 20. pabiloia
Tfnoak: 79 24 12 eta 79 97 95 ARRASATE



Salterain

Ezagutu itzazu PVCren bitartez gaur egun eskura daukazun leiho miresgarriak, ez hotsik, ez berorik, ez soinurik...

• ARANTZAZU IZARZELAIAREN GOMENDIOA •



Urteari amaiera emateko moduko gomendioa zuzendu digu Arantzazuk. 93a urte ona izan da beretzat pertsonalki, eta orokorrean ere hain txarra ez dela joan iruditzen zaio, baina 94a hobia izango den esperantzaz dago, "bai horixe, 94a hobia izango da". Horretarako, urtearen hasiera ilusioz beteta hartzea gomendatzen digu, "denok bakoitzak bere aldetik zerbait jarri behar dugu hobia izan dadin, eta urte berriaren aurrean positibo pentsatu".

• PROGRAMAZIOA •

ATB

ARRASATE

Non dago programazioa?

1993ko ARRASATE Presseko programazioa zahartu egin da, hiltzear dago. Egin beharrekoa egin du eta joaten utziko diogu. AEDko ARRASATE PRESS banatzaileek gehiegizko mugimendua ematen diotela banaketan eta aste honetan, ez du irtetzerik nahi izan. Baina hemendik aurrera beste programazio bat ikusiko duzue azken bigarren orrialde honetan. Urtarrileko lehenengo ARRASATE PRESSEan, 1994ko programazioa aurkeztuko dizuegu; gazte gaztea eta presku preskua, bai horixe! Dena den, kontuan izan urtarrileko lehenengo astean ez dela ATBn programaziorik egongo, jai hartuko dugu, opor motz batzuk. Programa berriak ekarriko eta aurtengo beste batzuk mantenduko ditugu. Sorpresez beterik etorriko gara. Bitartean, lerro hauen bitartez dijoakizu 1993ko programazioaren agurrik beroena, urte osoan zehar ATBko ikusle izan zaitugulako. Datorren urtetarte beraz, eta besarkada handi bat ATBko ikusle zaren horrentzat. AGUR!

• KOMIKIA •



LODITASUNA, LIPOESKULTURA, LIPOSUKZIOA.

Zelulitia, grasa eta loditasuna behin betirako kentzeko.

ESTETIKA KLINIKA

Santa Kruz, 24-1a (1a eskailera)
ARETXABAETA TFNOA: 79 13 54

VE ECUADOR

Bidaiak

Kontzeziño, 2
ARRASATE
Tfnoa: 79 14 06

Plus Ultra taberna

Maalako Errabala, 17
ARRASATE
Tfnoa: 79 20 57

• SOLUZIOAK •

GURUTZEGRAMA
Horizontalak 1. Virgo. 6. Lt. 8.
Ikuluak. 10. Ta. 11. Zarbo. 12. Ota.
14. Th. 15. Razional. 17. It. 18. Xi.
19. Ga. 20. Aitona.
Bertikalak 1. Victoria. 2. Ikaratu. 3.
Ur. 4. Gizaxo. 5. Oia. 6. Garbal. 7.
Saitoki. 9. Urtu. 13. Iz. 16. Oin.
Esi Gabe
JEROGILIFIKOA

ZURE IRAGARKIAK DEBALDE HEMEN! Idatz ezazu Azoka kaleko, 1era edo dei egin 77 05 65 ☎

Etxebizitzak

- **Apartamentua salgai** Arrasateko erdialdeko Olarte kalean. Sukaldea-egongela, bi logela eta ganbara. Aire egokitu eta kalefazioaz. Prezio egokia. Tfnoa: 79 63 16. Gauzez deitu. Luis.
- **Donostiako Gros auzoan** neska bat behar dugu etxebizitza osatzeko. Tfnoa: 29 32 90.
- **Aretxabaletan bi logela** alokagai, sukalderako eskubideaz. Tfnoa: 79 04 62.
- **Laukalean, Roneoko etxeetan**, 16,5 m² garaje itxi bat alokatzen da. Lehenengo pisuan. Tfnoa: 79 18 95.
- **Lokal bat salgai**. 85 m². Elkano kalean, 4. Tfnoa: 79 19 99. Manuel Bouzon.
- **Etxebizitza amueblatua salgai Bergaran**. Artekaile, 16 -1º. Tfnoa: 76 12 81.
- **Familia batek logela bat eskaintzen du**. 2 ohe, eroso, ikasle edo langileentzako. Pentsio erdia edo osoa, aukeratzeko. Jose Luis Iñarra Pasealekua, 25 - Behea, B. Tfnoa: 77 06 87. Rosario.
- **Etxebizitza alokatzen da** guztiz amueblatua. Helbidea: Maalako Arrabala, 21 lehena. Tfnoa: 79 47 17. Deitu 8,00etatik aurrera.
- **Uribe auzoan garajea** eta traste-lekua salgai. Deitu 77 13 02 tfnora.
- **Suizako neska batek** logela bat alokatuko luke, lehen bait lehen. Urtarriletik ekainera. Tfnoa: 79 90 36. Rita
- **Garaje bat alokatzen da** Uribe auzoan. Tfnoa: 94- 683 07 72.

Lana

- **Espereziadun neska** etxeko lanak egin eta umeak zainduko lituzke goizez. Tfnoa: 77 06 25. Deitu eguerdian eta gaueko 9,30etatik aurrera.
- **"Flauta trabes" jotzaileak** musika zein flautazko klaseak emango lituzke. Animatu! Tfnoa: 77 06 25. Miren. Deitu eguerdian eta gaueko 9.30etatik aurrera.
- **Gabonetako oporretan frantsesezko klase** partikularrak hartuko nituzke. Dei egin 79 99 82 tfnora. Miren.
- **Ingeleseko klase partikularrak** hartuko nituzke. Tfnoa: 71 41 14. (Hobeto natibo edo lizentziatua balitz).
- **Zure aulkia hondatuta baduzu**, lasai egon, guk gogortu eta kordelazko ipurdi berria jarriko diogu eta. Dei egin 79 15 96 tfnora.
- **O.H.O.ko klase partikularrak** emango nituzke. Tfnoa: 79 69 41. Arantxa.
- **Enpresa zientzietan lizentziatuak O.H.O., U.B.I., B.B.B** eta enpresa zientzietako klase partikularrak ematen ditu. Tfnoa: 79 16 19.
- **Espereziadun neska, prest** dago etxeko edozein garbiketa, ume txiki edo/eta nagusiak zaintzeko. Harremanetarako dei egin 79 27 50 tfnora. Azuzena.
- **Emakume euskalduna behar da** umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Hobeto kotxea badauka. Dei egin goizez edo gaueko 10,30etatik aurrera 79 28 01 tfnora.
- **Pertsona bat behar dut klase partikularrak** emateko REM 1. mailako batentzat. Tfnoa: 79 99 97.

Salerosketak

- **Kotxe telegidatua** bat saltzen dut eta honekin batera, walkman bat oparizat. Tfnoa: 79 58 25. Javier Vargas.
- **2 Levis urdin** estrenatu gabe salgai, New York-etik ekarriak. 29-32 neurriak. Prezio ezinhoba. Tfnoa: 79 24 97. Rakel.
- **Estufa japoniarra** saltzen da. 20.000 PTA. Tfnoa: 79 99 91.
- **Sofa, mahaia, mezedora** eta zumitzezko jarlekua salgai. Batera edo banan banan. Tfnoa: 79 47 94.
- **Salgai:**
 - AMSTRAD 2086 ordenagailua
 - Barruko 3 1/2 tako disketerak
 - Kanpoko 5 1/2 tako disketerak
 - VGA pantaila
 - Xagua
 - ACAD diskoak
 - D Base diuskua
 - Lotus diskoa
 - Jokuak

Prezioa: 60.000 PTA. Interesatuok dei egin 79 56 83 zenbakira eta Eduardoz galdetu.

- **"Barco" ohea salgai**. Tfnoa: 79 30 90
- **Komoda bat salgai**. Tfnoa: 79 35 21.

Denetarik

- **Kotxe zaharra botatzera zoazela?** HIES Ekimena kotxe baten beharrea dago, beraz... Tfnoa: 79 26 99.

Aste Gazte

Ikastaroak

- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailak, 93-94 ikasturteko eguneroko garraio gastuak ordaintzeko ezohizko dirulaguntzetarako deialdia egiten du. Urtarrilak 19.
- 94-95 ikasturtean Eskoziar Unibertsitateetan ikerketak nahiz ikasketak burutzeko bekak. Ingelesa menperatzen duten 25 urte-tik beherako lizentziatu edo karrerako azken ikasturteko ikasleei zuzenduak. Epea:

urtarrilak 27.

Lehiaketak

- Alecop ekipamendu didaktikoko enpresa kooperatiboak "Teknologian aurrerian" lehiaketa antolatu du. Edozein talde, Instituzio edo pertsonak har dezake parte. Lehenengo saria 250.000 PTAkoa izango da. Epea: urtarrilak 31.

Eski-kanpaina (Diputazioa)

- Asteburuko irteerak:

Candanchu, Formigal edo Astunera. Prezioak: 7.400-7.800 PTA (bidaia, goragailuen mugarik gabeko erabilera, pentsio erdiko ostalua eta igandeko bazkaria pistetako kafetegian, barne). Material alokairua: 1.500-2.000 PTA. Ikastaroa: 1.100-1.800 PTA. Epea: urtarrilak 31.

Lana

- Noingo Udalak (Nafarroa), Kultur koordinatzaile lanpostu bat betetzeko deialdia egiten du. Epea: urtarrilak 16.

"Duintasunarekin nahi dudana egingo dut, gizaki guztiok berdina gara, inor ez da bestea baino gehiago, nere ugazabandire naizenez, ez dut beldurrik, ez dut beldurrik" Matraka, 1991.



Informazio gehiago: GAZTE ZERBITZUA Tfnoa: 77 00 65

TXIKILANDIA



**1994ko VRTERILLAK 21K-5FA
ARRASATEKO KIROLDEGIAN**

ORDUTEGIA: Goizez: 11etatik 14etara Arratsaldez: 16etatik 20etara

AKTIBITATEAK: Aparatuak; • ohe elastikoak • puzgarri erraldoiak • Trena • Zezen mekanikoa • Bungue Run • Tailerrak: Globoak • Karetak • Jostailuak egitea • Paper birziklatua egitea • Rokodromoa egunero zabalik • Pizinan urefako aparatua eta jolasak egunero • Kirol jolasak • Txiki Txiki Txikilandia • Trena kalotik zohar • Geltokia • Sohero Altube plaza • Musakolako kiroldegia



Zorionak

IKER



FAGOR



SUKALDE ERAKUSKETA

Udala Enparantza, z/g
ARRASATE
TFNOA: 79 00 43

BAINU ERAKUSKETA

Zarugalde kalea, 52
ARRASATE
Tfnoa: 79 99 42

SUKALDE ETA BAINU ALTZARIAK